



MARISOL RAMIREZ / ARGAZKI PRESS

**Xabier Uribe-Etxebarria** • Anboto taldeko zuzendari nagusia

## «Sariarekin mundu osoan izango dugu arrakasta»

Munduko 'start-up' enpresarik onenak Anboto du izena, eta Euskal Herrian dago, Erandion hain zuzen ere; hala erabaki berri dute Innovate 2010 lehiaketako epaileek, eta Xabier Uribe-Etxebarria sortzaileak oraindik ezin du sinetsi.

**Mikel Carramiñana**

Idea berritzaile bat aurrera eramateko sortutako proiektuari *start-up* deritzo enpresa munduan. Hala sortu zuen Anboto Xabier Uribe-Etxebarria (Getxo, 1981) ekintzaileak, webguneekin elkarrizketa birtualak ahalbidetzen dituen sistema garatu eta merkatuan eskaintzeko. Teknologia alorreko munduko *start-up* onenaren saria irabazi du Anbotok Innovate 2010 sariketan, besteak beste Silicon Valleyko atearikiko dizkionak.

**G Lehenak sailkatzeko aukerak zenuztela pentsatzen al zenuten?**

**E** Onenen artean egotea ere oso garrantzitsua izan zen guretzat, izugarria. Hasiera batean, horixe bera zen gure helburua, ehun onenen artean sailkatzea. Azken egunetan, lor genezakeela pentsatzen hasi ginen.

**G Eta azkenean lortu duzue.**

**E** Beharbada oraindik ez dugusi-nesten, gauzak oso azkar joan baitira. Lan asko egin behar dugula sentitu genuen saria eman zigutenean, hau dena egia bihurtzeko lan egin. Hori esan nuen sariketaren ondorengo hitzaldian. Oso harro gaude epaimahaiak gu aukeratu gaituelako, baina, orain, haiek harro sentiarazi behar ditugu hartu duten erabakiagatik, bi urte barru asmatu zutela esan dezaten.

**G Silicon Valleyko guruek ezarritako irizpideak dira sariketan erabiltzekoak, ezta?**

**E** Bai, baina araudian ez ezik, lehiakideen gainean haiek egon dira. Hamar hilabetez gure enpresa jarraitzen ibili dira; hainbat bileran izan ditugu AEBetan. Hazkunde esponenziala nola egin dugun aztertu dute, enpresaren sorrera nolako izan den eta lehia-

ketak ezarritako irizpideak nola bete ditugun: taldea, negozio eredu, bideragarritasuna, salmentak eta abarrekoak.

**G Anbotori dagokionez, zer nolako aukerak zabalduko zaizkizue saria jaso ondoren?**

**E** Proiektzioa da garrantzitsuen. Epaileetako bat Chris Shipley izan da, Silicon Valleyko emakumerik garrantzitsuen, hala definitzen dute Wikipedian. Hark deskubritu zuen VMware enpresa hogeita langile besterik ez zuenean. Gaur egun, 8.500 baino gehiago ditu, Shipleyk orduko enpresa teknologikorik onena gisa aurkeztu zuelako. Mundua alda dezakegu harekin. Lehiaketan bigarren izan bagina, seguruenik ez zen gauza bera izango, baina lehiaketa irabaztea mugarririk izan daiteke guretzat. Hori lortu gabe ere, arrakasta izango genuela seguru nago, baina beste maila batean;

sariarekin mundu osoan lortuko dugu arrakasta; Txapeldunen Ligajokatzea da hau.

**G Saria jaso aurretik ere enpresa nazioartean zabalduko arizineten.**

**E** Anboton 20 bat lagun gara, eta, Erandioko egoitzaz gain, bulegoa dugu Bostonen. Orain Mexikon, Txilen, Londresen, Bartzelonan eta Madrilan ordezkariak zabalitzen ari gara. AEBetan, San Frantziskora mugituko dugu bulegoa, balizko bezeroak hor daudelako; eBay eta Walmart, esaterako.

**G Start-up enpresek inbertsio pribatu behar izaten dute. Horren falta sumatzen al duzu Euskal Herrian?**

**E** Agian bai, baina hemen errazago da ekintzailea izatea AEBetan baino, inbertsio pribaturik egon ez arren laguntza publikoak asko direlako. Ekintzailetasun ekosistemak lortzeko inbertsio pribatu falta daukagu; baina, aldi berean, AEBetan ez da hain erraza inbertsioak erakartzea, negozio eta merkatu ikerketa izugarriak eskatzen dituztelako. Hemen inbertsiorik ez dagoen aitzakiarekin enpresak sortzeko prest ez daudenei, hegazkina hartu eta hara joateko esaten diet, dirua hain erraz egingo dutela uste baldin badute.

**G Nolakoak dira bada AEBetako inbertsioak?**

**E** Inbertsio pribatuak, azken finean, enpresaren arrakasta nahi du, jarritako dirua biderkatzea. Beharbada inbertsio publikoak ez dute hori bilatuko; horregatik, AEBetan, zure gainean daude egun osoan. Harekin mila lekutarajoan beharko duzu, eta negozioaren arrakastan lagunduko dizu.

«Ekintzailetasun ekosistemak lortzeko inbertsio pribatuaren falta daukagu»

«Hau lortu gabe ere, arrakasta izango genuen, baina beste maila batean»

Hori bai, mugitzeko prest zaudela ikusi beharko dute; bestela, arduradun berria bilatuko dute enpresa gidatzeko.

**G Interneteko erraldoiek, askotan, zuenaren moduko teknologia bereganatzen dituzte dirutza ordainduta. Halakorik gerta daiteke?**

**E** Gerta liteke, baina nire asmoa ez da hori. Euskal enpresa bat munduan kokatzea da nire asmoa. Ez dakit zer gertatuko den hemendik denbora batera, baina orain aukera daukagu linguistika eta semantika teknologietan munduko onenak izateko, eta horretan lan egin behar dugu. Hala ere, askotan esaten denez, inor ez da profeta bere herrian.

**G Aitarengandik datorkizu linguistikarekiko zaletasuna, ezta?**

**E** Bai, 14 urterekin hasi zen esperantoa ikasten, eta, egun, hizkuntza gutxituen alde lan egiten duen Metalingua Unesco fundazioa darama. Harekin lanean ari nintzela itzultzaile automatiko izugarria egin nuen, eta, kodea berridatzita, semantikako gauzak nola egin ikasi nuen. Anbotokoa, hala ere, beste urrats bat da, elkarrizketa sistema birtualak.

**G Zer nolako bezeroekin egiten duzulan?**

**E** Lau sail ditugu. Lehenengoa hegazkin konpainiek eta hotelek osatutakoa da; Vueling dugu bezero ezagunetakoa. Bigarrena bankuak dira; hirugarrena Interneteko saltokiak; eta, azkena, osasungintza, Osakidetza eta IMQ, esaterako. Gehienbat saltzaile birtualak egiten ditugu, baita Interneteko solasgune adimendunak ere. Bezeroak bere hitzekin azal diezaioke webguneari zer erosi, zer galdetu eta zer egin nahi duen. Saltzaile birtualen eremuan ez dago merkatuan gurekin lehiatzeko gai denik.